



Ehundaka pertsona bildu dira Palestinako herriari elkartasuna erakusteko Hego Euskal Herrian

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 13/10/2023

Bihar urriak 14 manifestazio bat burutuko dute Iruñean mobilizazioei jarraipena hemanaz 11,30etan Baluarte plazan hasiko dena.

BDZ plataformak deituta aste honetan ehundaka pertsona mobilizatu dira Bilbon, Gasteiz, Donostian eta Iruñean. "75 urte baino gehiago daramatza Israelgo Estatuak Palestinako herriaren kontrako kolonialismo, apartheid eta garbiketa etniko politikak ezartzen" gogorarazi dute, eta mendealdeko estatuen konplizitatea salatu.

(Donostiko mobilizazioa, Herri ekimenaren irudia)

Segidan Europako, Espainiar Estatuko eta Euskal Herriko empresa eta erakundeen konplizitatea salatu dute Palestinaren kontrako genozidio sionistarekin: "CAF, SOSA, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako startup-en azeleradorea, euskal erakundeen dituzten enpresen arteko harremanak..."

(Iruñeako konzentrazioa)

Era berean jarrera onargarri bakarra herri palestinarrari erabateko eta baldintza gabeko babesa ematea dela aldarrikatu dute ehundaka lagunek, "Palestinarentzat existitzea erresistitzea dela eta erresistentzia ere eskubidea dela".

(Gasteizko irudiak, Hala Bedi ateratako argazkia)

Palestinar herriaren erresistentziaren eta askatasunaren aldeko oihuak bota dituzte elkarretaratzean, Israeli boikota aldarrikatu dute beste behin ere eta hurrengo mobilizazio deialdietara adi egoteko deia egin dute. Honen harira manifestazioa deialdia egin du BDZ plataformak Iruñean izango dueña lekuko larunbat honetan 11,30etan hasiko dena baluarte plazatik.

<https://eh.lahaine.org/ehundaka-pertsona-bildu-dira-palestinako>